

Dialektika baten ikaspideak

«Es muy posible que se pueda concluir que el País Vasconavarro da al resto del país (impuestos, ahorro que se coloca fuera, etc.) más de lo que recibe (servicios públicos) en términos monetarios».

Aitorzapen hau, Madrid-en ataraten den Blanco y Negro aste-karian irakurri ahal izan dugu, soziologiko ezaguna den Amando de Miguel-en artikuluan. Aitorzapena dena ukatzerik ez dago, datorren tokitik datorrela ikusirik. Egia horren jabetzera berez etorri ez direla esatea, bistan dagoen gauza agertaraztea litzake, baldin gertatu honetatik, guk ikaspide ona ateratzeko parada eskutan ez bagenu. Bilbon eta Donostian bertan ere bada, oraino, herri-diru «zaindaririk» Madrid-en aitorzen dutena aitorzera ausartuko ez denik. Halere, esan beharra dago, irakipsidea hontatik bait dator, bultzada, egia aitorzera makurtarazi ahal izan duen bultzada, hemen, gure artean sortua izan dela.

Dialektika honetan —errealitatearen arazo bat hartu, eta alde eta saiheats «aniztetatik» aitzertze lanean— zerkisuz berezia izan du gure aitzakariak, Z. Argiak. Eregelkeria litzake, azterketa eta dialektika honen sorrera, lehenik eta nagusiki, errealitatean bertan ez ikustea. Hain nabaria da, izan ere, gertatzen dena, hots, Amando de Miguel-ek aitorzen duena; hain agerian daukagu, errealitate baten egiturek eta legegok dakarten ondorioa, ez tsu egon beharko genduen, han eta hemen, taldeetan eta bakarka, argi baino garbiago dagoena ez ikusteko.

«Dialektika» hitza, halabaina, berariaz, jakinaren gainean, ezarri dut, goraxeago. Izan ere, lanak eman ditu «agerian dagoen errealitate hori», «begiz jotzen» genduen egia hori, aztertzek, formalizatzeak, iragarzteak, eztabaidatzeak, kritikatzek eta azkenik, barnean eta kanpoan, herri-kontzientziaren baitan finkatzek.

Lan hori ez da leuna izan, sarritan. Zenbat etsai eta kontrario aurkitu duen idegia honek bere bide egiatia eta eragilea aurrera urratu nahi izan duenean! Ez zituen, ez, hainbat oztipo bere bidean jasan behar izango, ez zenbait peril eta arrisku garaitu beharko ere, baldin bere egia sakona eta esan nahi handikoa izan ez bazen. Ez uste izan, haatik, artikulua honen hasteko ezarri dugun aitorzapenaren lekukoa, hortan bukatzen denik. Ez eta gutxiago ere. Geroxeago aipatuko dut, pasarte horren

segida. Borroka, ideien eta azterketen borroka, ez zaigu, oraindik, bukatu, alor honetan.

Baina, une honetan, artikulua honetan, gauza guzuen gainetik, zera markatu eta nabarmenerazi nahi nuke: dialektika honetan, gizartea eta ekonomia besarkatzen dituen arazo honen borrokan, alegia, gehienbat jende gaztea ibili dela eta dabilela. Jende gaztea, nahiz unibersitatetan, nahiz herrietako ikas-bilkuretan, izan da prolema honetaz jabetu dena.

Gertakariaren garrantzia, beraz, hontan datza: gure Herriak gaurregun dituen prolemetatik sakonetako bati aurpegio eman dugu eta praktika teoriko mailan, bederen, borroka eta dialektika aurrera ateratu ahal izan dugu. Duela lau bost urte aipatzerik ez zegoen arazoa (gu besteren bizkarretik bi zi ginalaren mito zapatzaila, arras finkatu eta agitz hedatu bait zegoen), gaurregun, ageri denez, mundu guziki aitorzen du. Alde horri baino garrantzi handiagoa, haatik, beste alde hoi eman behar dugu: lehen aipatu ditudan gazte ikasi hauek, fenomeno berri bat agertu digute eskual herrigintzan. Beste inor adina euskalazale eta euskerazale izanik, Herria bere guztiko osotasunean ikusten du gure gazteria ireki, aurrerazale eta ikasi honek. Eta begi kolpea han ezartzen du, herriaren arlo sakonetan itsatsirik dauden erroetan, hots, gizartearen, ekonomia eta ideologiararen egituratan.

Herrigintza, beraz, gaurregun, indar honek bakarrik ailtza dezake, gure artean, egiazko herrigintza baten mailara. Bada, hortarako, premiazkoa den gaitasuna, bada inork bestek adinako euskalazalatasuna. Hori guziki beharko du, halabaina. Azterketaren eta ideien borroka hori ez bait da bukatu, ez bukatuko ere. Horrexegatik, «garatzen» hitzik ez zaigu jaulki gure lumatik.

Zertarako uste duzue, bada, egin duela aipatu soziologoak, artikulua honen hastean ezarri dugun aitorzapena? Okerrak eta makurrak zuzentzeko?

Ikusiko dugu, bai, ideologia indartsu baten izkutukiak zein aberatsak diren. Aitorzapen hori agertu bada, honegatik bakarrik agertu bait da: bertan finkaturik eta oinarriturik, gure bizkarrera, ikusiko dugunez, zama astunagoa bizkarreratzeko.

G. ANSOLA

Kolonialismoaren mugak Usterik gabeko elkarrizketa bat

Bazkaldegi apal herrikoik batetan nagoeiarik, bi beltz gure egokitu zaizkit ondo-ondoan. Europatar moqura jantzia bata; kolore nabarmenetako al-kandora bitxi batez, berri, beste, Eta, berariaz ez adit-zeko gogorik batere gabe ere, berehala konturatu naiz egoeraz: bi beltz haiek zerabilkiten hizkuntza hura ez zela enitzeko ezaguna, eta urrundik ere! Eta gaide egin diet:

—Barka zazu. Zer hizkuntzari ari zarete? Oso jakin-min naukazu, Ez da arrastorik ere ulertzen.

—Irribarre egin dute biek. Eta europatar jakzerarenak, oso frantses egokian, honela erantzun:

—«Sarakolèz» ari gaituzu. Senegalen badaude etnia desberdin batzuk; eta horietako bat, eta ez zabalena edo inportante-ena, gure «sarakolè» hau duzu.

—Hara! —nik—, Senegaldar-rrak zarete, hortaz?

—Ez, bada —beti europatar jakzerakoa bien izenean edo mintzo—. Ni neu bai, ni Senegaldarra naiz. Baina ene adiskide hau Gambie-koa da. Bada-kizu Gambie nun den? Ez Zambie, gero...

—Bai, bai, badakit gutxi gora-behera —nik erantzun—. Senegalen Hegoaldeko mugaren luzean dagoen erresuma txiki bat da Gambie, oso hertsia. Ez da hori?

—Justu! Horixe duzu Gambie. Ene adiskidea hangoa da.

—Eta, nun ezagutu duzue elkar?

—Parisen. Eta paperen alde-tik elkarrekiko atzerritar izanagatik ere, hemen gaituzi biok barra-barra geure etxe-hizkuntz mintzatan ari. Ez dugu sekula frantsesez egiten geure artean, jakina...

Kolonialismoaren mugak, betidanik eta nun-nahi, funsgabeak, zatitzaileak eta eragabekak direna, nor ez du inoiz entzun? Egia. Nik ere banekien. Baina ustegabeko baiespene horrek mila teoriak baino finkatu-ago utzi nau irizti horretan: Afrikan, Asian, Europan, erre-sumen arteko mugak ez dira ia inun herrien errespetuan markatu, herriez trufatuz eta iseka eginez baizik. Gambia eta Senegalen artekoa ezpal berekoa da.

—Senegalgo etnia nagusia —ekin dio ene lagunak— «wo-loff» izenekoa da, Baina, orain-goz bederen, frantsesa da guz-tion lege-hizkuntza nagusia. Badira liburu batzuk, hori bai, «sarakolè» herriaz; baina esko-la eta administrazioa ez dira «sarakolèz»koak, ez woloff-er-zkoak, frantsesezkoak baizik.

—Eta, ez duzue zelebre aurkitzen zeron egoera hori guz-tia?

—Bai, jakina —sarakoleta-rrak hitz—. Baina Afrikako mugek eta Europakoak ez dira berdinak. Gambiaren eta Senegalen arteko muga hori, esate baterako, bost axola zaigu gu-ri. Ene adiskide hau eta biok herrikideak gara, eta kitto. Eta oi-han haietan beretan, areago. Muga horiek Europatik ikusirik badute axola. Handik beretik, batere ez. Ez daki hango inork nun diren ere...

—Benetan hori?

—Noski! Europatarrok ez du-zue Afrika konprenitzen, Hura oso da liferentea, zinez. Gure artean, esate baterako, inun ez da gertatzen inork norberaren hizkuntzaz besterik ez er ja-kitea. Han denok dazkigu, geu-reez gain, eta gutxi gora-behe-ra bederen, bi, hiru are lau hiz-kuntza ere; eta horrela inguru-etako etnia guztiak, praktikaren eta egiazko biziazaren mailan, oso loturik daude, gaurko Euro-paran somatu ere egin ezin dai-tekeen eran.

—Europa zaharrean horrela-ko zer bait bazela esan daiteke beharbada. (Bidarteko, Oraga-rrako eta Barkoxeko baserriar zaharrek askotan dakite kas-koinez).

—Afrikako Mendebaldean, gonbarazio batez —ekin zion ene lagunak— anitzek daki «haus» hizkuntza (baita Nige-riatik at); eta merkatalgoan eta gainerako harremanetan maiz erabiltzen. Gauza bera, beste lurraldetan, «swahili» de-lakoa.

—Nolanahi ere —nik galde— badirudi zuek ez duzuela gu-txietsirik gertatzeko bildurrik; eta zeron hizkuntzaz baliatzen zarete laasai. Ez da hala?

—Horretan ere, zuek europa-tarrok ez gaituzue ongi uler-tzen. Guk ez baitugu europata-rren alderditik gaizki hartuak, zapuztuak eta gutxietsiak iza-teko bildurrik. Gure artean, baita ezikasiek berek, jasan du-gun kolonialismoaren kaka konprenitzen dute; eta gero eta azkarkiago agertzen dugu geu-re nortasuna.

—Memmi ezagutzen duzue? Kolonialismo eta imperialismo arazo horietaz, inor ez da se-kula mintzatu, ene ustez, Al-berth Memmi baino zehazkiago eta zorrozkiago. «Portrait du Colonisé», «L'Homme Dominé», ahantzi ezinezko liburuak dira.

—Ez dut Memmi ezagutzen. Baina kolonialismoa ulertu dut; eta denok dugu ulertu, baita Afrikako xumeenek ere. Apar-theid-en arazoa, portugesen zan-paketa lotsagarria, neo-kolonfa-lismoaren jukutrik eta azpiko-riak, denok senditzen ditugu; eta barne-mugidaz garbiki ule-r-tzen. Ez zalantzarik egin. Euro-patarren laguntza gabe ere bai. Indarra falta dugu. Maok inda-ria eman dio Txinari, eta Txina gaur errespetatua da nun-nahi.

—Ez dizu hori inork ukatuko. Memmi, bestalde, afrikatarra da; tunteztarra hain zuzen. Ju-dua bada ere.

—Bai, bai, Haren aditza ba-dut. Baina guk orain geure muinetik beretik abiatu behar dugu, geure haragiag nagusiz-tik. Ene adiskidea eta biok, esa-te baterako, mahometarrak gara teorian, Senegal eta Gam-biako % 90 bezala. Eta gainera-koak, teorian beti, kristauak omen. Baina belauen berriak oi-hanetako leinuen jakindurian eta gure erlijio zahar animista-tan bilatzen du izpiritu-hats ber-ria. Kristautasuna eta maho-metartasuna, anaia bizkiak dira guretzako: bata eta bestea imper-ialismoaren bitartez sarre-raziak. Ez ditugu ezertarako behar. Geure tradizioan bila-tu behar dugu egia. Geure mun-dua eta zuena ez dira berdinak. Zuen egia ez digu Afrikan ba-lilo.

—Ez zarete zoriontsu, beraz, lurralde hauetan... nik galde.

—Ezta inundi ere! Afrikara nahi dugu, eta afrikartu nahi ere bai. Hemen, Europan, dena da hotza, eta norberekeriak, individualkeriak, multzo-idea, herrietasuna, eihartu du. Afrikan, berriaz, multzo-giroa, talde-gogoa, elkar-te-nahia, anaitasuna, bizirik daude oraindik. Hots, hotzak hiltzen du Europa, nor bere burura bildua izateak. Burgesiak, eta nork bere alde-tik jokatzeko grinak, ekarri du-ten hotzak hiltzen zaitue. Guk ez dugu horrelakorik nahi. Gure herrietan gizarte-tasuna, multzoen berotasuna eta kide-tasuna, nahi eta bilatzen ditu-gu. Ez hemengo populu kolo-regabe, hotz eta sustraigabe hauek...

—Eta bide beretik jarraitu du oso erromiki. Eta beti mamitsu.

Nola ukatuko afalondo horretan «sarakolè»tar ustegabeko lagun horiek asko eta asko era-katsi zidatenik?

LARRESORO

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldez:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA
Urrutzikiñak: URRETXUA
Etxekoak 65 19 60 Urrutzikiñak:
Landoiakoa 65 19 33 Landoiakoa 67 17 64

ERAKUSTOKIA: Tolosa - Zumalacarrégi, 7 gn

JOSE ZINBUNEGI' BEN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

YOGUR
GUÑELESA
GOGOZKOENA


